



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek LAU atal ditu: lehenengo biak erantzun bakarrekoak dira, eta beste biek bi azpiatalen artean hautatzeko aukera dute. Hona hemen puntuazioak:

- 1. atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).
- 2. atala. Harrera arte eszenikoetan (1,5 puntu).
- 3. atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa (2,5 puntu).
- 4. atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

Atal bakoitzari erantzun behar diozu. Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

1. atala. Ondare eszenikoa. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa (3,5 puntu).

Kultura Sailak gorabidean dauden konpainiak hautatzeko deialdia egin du, eta Jordi Galceran-en *Gronholm metodoa* obraren proposamen eszenikoa eskatu du. Zuk, deialdi horretara aurkezten den konpainia bateko kide zaren aldetik, Kultura Sailak izendatutako hautaketa-batzordeari honako atal hauek azaldu behar dizkiozu hautatua izateko:

- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, antzerki-generoa (0,5 puntu).
- Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
- Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den eta garai horretan zer antzerki- eta arte-korrante dauden (0,5 puntu).
- Argumentua, obran ageri den gatazka nagusia eta jorratzen dituen gaien gaurkotasuna. (1 puntu).
- Zure kezka artistikoetan oinarrituta, zer rol hartuko zenuke zure gain konpainiaren barruan? Zergatik? Zerrendatu zer funtzio edo zeregin beteko zenituzkeen (1 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, hiztegiaren aberastasuna, hizkuntza-adierazpenaren egokitasuna, ortografiaren zuzentasuna eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak. Jarraian, obraren zati bat daukazu erreferentzia gisa erabil dezakezuna.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

FERNANDO: Barka, baina istorio polit horrekin jarraitu baino lehen, esango al diguzu zer dela-eta psikodrama hau orain? Geure burua kokatzearen, gehienbat.

ENRIQUE: Berehala jakingo duzu. Lehenago, beste zerbaitekin kontatu nahi dizuet. Ezagutzen al duzue chat-en mundua? Internet eta hori guztia... Ba, hor sartzen hasi nintzen. Norbaitekin hitz egitearren. Egun batean, neska batekin gelditu nintzen. Chat-eko batekin, esan nahi dut. Elkartu ginen egun batean, kafe bat hartzera joan ginen, eta oso ondo... Zera zen... Oso polita zen. Hitz egin genuen. Nik, aspalditik, ezin nuen inorekin hitz egin. Berrito gelditu ginen beste egun batean, eta nire etxera eraman nuen. Ni nengoen... Zera egiteko gogoia nuen... Ez da zera egiteko gogoia nuela... Esan nahi dudana zera da, lur jota nengoela. Etxera iritsi ginenean, pistola bat ateratu zuen eta mehatxu egin zidan.

MERCEDES: Pistola bat?

ENRIQUE: Bai, eta orduan gizon bat etorri zen. Etxean neukan guztia lapurtu zidaten.

CARLOS: Adarra jotzen ari zara, ezta?

FERNANDO: Aspalditik.

ENRIQUE: Gero, kutxazain pare batera eraman ninduten, eta ahal izan zuten guztia ateratu zuten txarteletatik. Lehen aldia da hori kontatzen dudana, ze nahi dut zuek ulertzea hori izan zela akabera eman zidana. Hortik aurrera, kontrola galdu nuen.

FERNANDO: Kontrola galdu, zerena? Zer arraiotzen ari da?

CARLOS: Nik ba al dakit!

ENRIQUE: Hasi nintzen gaizki sentitzen. Sendagileak baja eman nahi zidan, baina nik ez nuen hartu nahi izan. Atzerrian fabrika bat zabaldu behar genuen laster, eta nik bi urtez lanean ari nintzen merkatu berria zabaltzeko... zerean... atzerriko herrialde horretan. Kontua da beharbada hobe nuela sendagileari kasu egin banio, ze nire errendimenduak behera egin zuen, erabaki batzuk hartu nituen... erabaki asko hartu behar nituen, aurrekontua inbertitu behar nuen... Denak presaka zebiltzan, eta zuzendaritzak konfiantza zuen nigan... Huts egin nuen. Tokiko enpresa batekin elkartu nintzen eta... bueno, ez zen ateratu aurreikusita zegoen bezain ondo. Uste nuen lanean zentratzeak lagunduko zidala nire arazo pertsonalak gainditzeko, baina ez. Okerrera egin zuen. Eta, hala, orain badirudi nahiko zaila dela egoera konpontzea, eta enpresa zera pentsatzen ari da... Nik, orain arte, beste proiektu batzuetan oso emaitza onak lortu ditut, eta nire balio profesionalen ez dago zalantzarik; behintzat, hori esaten dute haiek, baina gauzak joan diren bezala joan dira, eta ez da harrizkoa, egoera horretan, nire nagusiek nire etorkizunari buruz erabaki bat hartu beharra izatea. Eta, orain,



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

interesatzen zaizuenera iritsiko naiz. Zera eskatu didate, zeuek hartzea erabaki hori; alegia, pentsa dezazuela nire enpresa bazinete bezala. Erabaki behar duzue ea atzerriko proiektuan jarraitu behar dudan, beste lan-lerro bat emango didazuen edo, besterik gabe, baztertu egingo nauzuen, kaleratu alegia.

CARLOS: Guk?

ENRIQUE: Bai.

MERCEDES: Hori eskatu dizute?

ENRIQUE: Bai.

CARLOS: Baina, kasu teoriko bat da ala erreala?

ENRIQUE: Zer alde dago?

2. atala. Harrera arte eszenikoetan. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (1,5 puntu).

Testuaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatu, agertzen diren termino teknikoak erabilita (1,5 puntu).

Objektuak

Objektuak sakratuak dira. Antzerkiaren argotean atrezzoak ere esaten zaio. Objektuen trataera ezta izan behar da [...]. Objektuak modu desberdinetara erabili daitezke. Erratz bat hartuko dut adibide gisa.

Objektu erreala: erratz hori erabil dezaket zorua garbitzeko. Bere pisuaren, formaren, kolorearen mugikortasunaren... kontzientzia hartzen dut. Berezkotuen propietateak baliatzen ditut eszenan modu errealean erabiltzeko.

Objektu eraldatua: erraza beste zerbait bilakatzen da, adibidez, zaldi bat edo gitarra bat.

Objektu identifikatzailea: objektuaren identitatea onartzen dut. Objektua bilakatzen naiz. Nola sentitzen naiz erratz bat banaiz?

Objektu imajinarioa: erratz bat izango banu bezala irudimenarekin jokutzen dut. Mimatzen dut. Hau, normalean, mimo munduan ematen da.

Objektuen mundua oso interesgarria da. Are gehiago, objektuen antzerkia. Imajinazioaren lana, antzerkiak hartzen duen dimentsio magikoa eta aktoreak objektuak biziarazteko egiten duen esfortzu eta jolasak ez du parekorik. Mundu bat da objektua.

LIPUS, Ander (2023). "Antzerkiaren Labirintoan II". Susa; 47-48 orr.

Koherentzia eta kohesioa, hiztegiaren aberastasuna, hizkuntza-adierazpenaren egokitasuna, ortografiaren zuzentasuna eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak balioetsiko dira.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

ARTE ESZENIKOAK

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ARTES ESCÉNICAS

3. atala. Interpretazioa, antzezpena eta eszenifikazioa (2,5 puntu).

Bi aukeren artean bat aukeratu, eta erantzun:

- A) Ikasturtean zehar burututako esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenukeen eszenaratzean eszenografiaren diseinua (2,5 puntu).
- B) Deskribatu ikasgelan pertsonaien arteko harremanei ekiteko egin duzun talde-entzumeneko ariketa bat, eta arrazoitu nola aplikatu den eszenan (2,5 puntu).

Koherentzia eta kohesioa, hiztegiaren aberastasuna, hizkuntza-adierazpenaren egokitasuna, ortografiaren zuzentasuna eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak balioetsiko dira.

4. atala. Terminologia teknikoa (2,5 puntu).

A edo B aukeren artean bat hautatu, eta definitu agertzen diren 5 termino teknikoetako bakoitza. Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Nahikoa izango da gehienez bost lerro idaztea termino bakoitzeko.

- | | |
|-------------------------------|---------------------------------|
| A) Figurantea (0,5 puntu). | B) Antzerki epikoa (0,5 puntu). |
| Tragedia grekoa (0,5 puntu). | Il kapitano (0,5 puntu). |
| Inprobisaketa (0,5 puntu). | Koreografoa (0,5 puntu). |
| Supermarioneta (0,5 puntu). | Fartsa (0,5 puntu). |
| Frisoa/banbalina (0,5 puntu). | Besaulki patioa (0,5 puntu). |

Terminologiaren eta sintaxiaren zuzentasuna balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.